

Zerbitzuetako orria

Langileen Kudeaketako Atala

Nominak eta Gizarte Segurantza Atala

Giza Baliabideen Zerbitzua

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA



2019ko otsaila

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Identifikazioa

NUP goi-mailako irakaskuntzako erakunde publiko bat da. Ingurunearen aurrerapenarekin, bere garapen iraunkorarekin eta bere hiritarren bizi kalitatearen hobekuntzarekin konprometituta dago, gainerako gizarte eragileekin elkarlanean jarduten du, eta nazioarteko bokazioa dauka.

Horri begira, unibertsitateko komunitatea jakintza kultural, zientifiko eta teknikoa sortu, zabaldu eta eskualdatzera emana dago, bai eta pertsonen prestakuntza oso bat ematera ere.

Zerbitzu honen web-orrialdea da: <http://www1.unavarra.es/servicioRRHH>

Eginbeharra

Langileen Kudeaketako Atalaren eta Nominak eta Gizarte Segurantzaren Atalaren eginbeharra Giza Baliabideen gaitako administrazio prozesu guztien kudeaketa bultzatzea eta laguntzea da, bai Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez, bai irakasle ikertzaileei dagokienez. Kudeaketa hori legezotasun printzipioari lotuko zaio prozedura guztietan, eta Unibertsitatearen Plan Estrategikoaren helburu eta lehenetsiak bateratu beharko ditu, eta erabiltzaile guztien asebetetasuna zaindu kalitatezko zerbitzu bikain baten bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren balioak

Osotasuna

Zintzotasun moralarekin, printzipioekin bat, zuzentasunez eta prestutasunez jokatzeko esan nahi du. Fidagarriak diren pertsonen aplikatzen zaie balio hori.

Ahalegina

Borondatea, borrokatzeko eta sakrifikatzen gaitasuna sustatzen dira, eta honetara zuzenduta daude: arazoak konpontzea, gatazkak gainditzea eta interes komunera bideratutako helburu pertsonalak eta kolektiboak lortzea.

Berrikuntza.

Esparru, testuinguru, ezagutza, metodo, prozedura edo produktu batean berritasunen bat edo batzuk sartzea aurreikusten du.

Ingurunearekiko erantzukizuna

Unibertsitatearen konpromisoa bera kide duen gizartearen interes orokorren arabera jokatzeko, eta bere baliabideak iraunkortasun irizpideen arabera erabiltzea.

Zerbitzuak, konpromisoak eta adierazleak

Zerbitzua	Konpromisoa	Adierazlea	Balio objektiboa
INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA	Modu asegarrian erantzutea Giza Baliabideen Zerbitzuan egiten diren kontsultei.	Giza Baliabideen zerbitzuaren gogobetetasun inkestaren "Erantzuteko ahalmena" galderari erantzuteko batezbesteko puntuazioa	3.50, gehienekoa 5 izanik.
GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA PLANGINTZA	Norbere espedientearekin lotutako ziurtagiriak egitea, eskatzen direnetik 10 laneguneko epean, gehienez ere.	Ezarritako epean egindako ziurtagirien portzentajea	%90
LANGILEEN HAUTAKETA ETA LANPOSTUEN HORNIDURA	Webgunea eguneratzea, eta oholetan jartzea hautaketa, sustapen eta lehiaketen deialdiak, prentsan, BOEn edo NAOn argitaratzen direnetik, gehienez ere lan egun bateko epean.	Webgunean argitaratutako hautaketa, sustapen eta lehiaketen deialdietatik ezarritako epean oholetan jarritakoen portzentajea	%100
	Gehienez ere 2 laneguneko epean ebatzea concursos.oposiciones@unavarra.es helbidearen bidez egindako galderak hautaketa prozesuei, sarbideei eta sustapenari buruz.	Egindako galderen erantzunen portzentajea ezarritako epean	%91
LANGILEEN ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	Langileen Atariaren bidez jasotako AZLen opor egunen eskaerak tramitatzea, gehienez ere 5 laneguneko epean ebatzea.	Ezarritako epean tramitatutako opor egunen eskaeren portzentajea	%88
	AZLren ordutegiaren kontroleko gorabeherak, gestion.horario@unavarra.es helbidearen bidez jakinarazitakoak, gehienez ere 5 laneguneko epean ebatzea.	Ezarritako epean ebatzitako gorabeheren portzentajea	%98
ORDAINKETA ETA KOTIZAZIO PROZESUAK	Eduki ekonomikoko gorabeherak, gehienez ere hilabete bateko epean betearaztea aitortzaren jakinarazpena egiten denetik.	Ezarritako epean betearazitako gorabeheren portzentajea	%99
	NUPeke Zerbitzuen dokumentazio eta frogagiri ekonomikoak aurkeztea gehienez ere 5 laneguneko epean, nominas@unavarra.es helbidearen bidez eskatzen denetik.	Ezarritako epean emandako agirien eta frogagiri ekonomikoen portzentajea	%97
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA	Prestakuntza Planean parte hartzen duten AZL-ren gogobetegarritasun balioespena erdiestea.	Batezbesteko gogobetegarritasun maila AZLrentzako Prestakuntza Planari buruzko gogobetegarritasun inkestan	5, gehienekoa 6 izanik.

Hobekuntzaren jarraipena eta laguntzea

Urtero egingo da Zerbitzuetako Orri honen eta bere edukien berrikusketa bat, eta bertan hartzen diren konpromisoak noraino bete diren aztertuko da.

Erabiltzaileek gogobetetasun-inkestan ematen dituzten iritziak ere aztertuko dira.

Dagokion lan-arloak orri hau betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, eta hobekuntza planetan sartuko dira.

Kexak, iradokizunak, esker-onak eta kontsultak egiteko sistema

Erabiltzaileek eta bezeroek arreta ematen duten telefono bat edo batzuk dauzkate lan-arlo bakoitzean. Horietan, eta bulego-orduetan, egoki jotzen dituzten kexak, iradokizunak, esker-onak eta kontsultak egiten ahal dituzte.

Arlo bakoitzak hainbat helbide elektronikoko eta posta helbide baditu. Horien bidez, erabiltzaileek emandako zerbitzuekin zerikusia duen edozein gauza bidaltzen ahal dute.

Halaber, lan-arloetan badira inprimaki batzuk kexak, iradokizunak, esker-onak eta kontsultak egiteko.

Azkenik, iradokizunen postontzia ere erabilgarri dago bezero eta erabiltzaileentzat webgunearen bidez.

Araudiak

AZLei buruzko araudia:

<http://www1.unavarra.es/servicioRRHH/normativa/pas>

Irakasle-ikertzaileei buruzko araudia:

<http://www1.unavarra.es/servicioRRHH/normativa/pdi>


Helbideak eta orduak

Giza Baliabideen Zerbitzua
Soforak eraikina
Arrosadiko campusa, z/g
31006 Iruñea

Jendearentzako arreta:

- Irakasle Ikertzaileak: recursos.humanos.pdi@unavarra.es
Unibertsitateko irakaskidegoak: 948169020
Kontratupeko irakasleak: 948 169019
Ikertzaileak: 948 169433/9879
 - Administrazio eta Zerbitzuetako langileak: recursos.humanos@unavarra.es
Tel.948169008/6314
 - Ordutegiaren kudeaketa: gestión.horario@unavarra.es; Tel. 948166291
 - Langileen ataria: portal.empleados@unavarra.es ; Tel. 948168916
 - Txartelak: oficina.informacion@unavarra.es ; Tel. 948169096
 - Sarrera eta hornidura: concursos.oposiciones@unavarra.es; Tel. 948169879
 - Nominak: nominas@unavarra.es; Tel. 948169014
-
- Jendeari aurrez-aurre arreta egiteko orduak: astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:30era, NUPeko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen urteko lan-egutegian ezartzen diren jai-egunetan izan ezik.

NUPEko CAMPUSAREN PLANOA - ARROSADIA (IRUÑEA)



1. Ikasgelategia; 2. Liburutegia ; 3. Kafetegia; 4. Gorostiak sail-eraikina; 5. Gurbitzak sail-eraikina; 6. Magnolioak sail-eraikina; 7. Arteak sail-eraikina; 8. Haginak sail-eraikina; 9. Pinuak sail-eraikina; 10. Olibondoak sail-eraikina; 11. Mantentze Zerbitzuaren eta Instalazio Orokorren eraikina; 12. Lantegiak eta Laborategiak; 13. I+G ikastegia, Elektronikan eta Komunikazioan; 14. Jantokiak; 15. Soforak eraikina (Administrazioa eta Kudeaketa); 16. Errektoretzako eraikina; 17 eta 18. Sario eraikina (17). Praktiketarako eta Nekazaritza Ikerketarako Etxaldea (18); 19, 20 eta 21. Sekuoia eraikina (Kirol Bulegoa) (19). Kiroldegia (20). Beste kirol-instalazio batzuk (21); 22 Agrobioteknologia eta Natura Baliabideen Institutua; 23 CITEAN; 24 Urkiak unibertsitate-egoitza